


2026ko ESKOLA IZOTZ I. KANPAINAren **BALDINTZAK**

AURREINSKRIPZIOA: ABENDUAREN 23RA ARTE

**CAMPAÑA
ESCOLAR
DE HIELO**



**ESKOLA
IZOTZ
KANPAINA**

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**



**Uharteko Udala
Ayuntamiento de Huarte**

**Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física**



**Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua**

1. PARTE HARTZEA ETA IRAUPENA	3
2. LEKUA	3
3. HELBURUAK	4
4. JOAN-ETORRIAK	5
5. MATERIALA ETA EKIPAMENDUA	5
6. OSASUN LAGUNTZA ETA ASEGURUAK	5
7. JARDUNALDIAK	6
8. LANGILE TEKNIKOAK ETA LAGUNTZAILEAK	6
9. JARDUNALDIAREN GARAPENA	7
10. PARTE HARTZEKO KUOTA	7
11. AURREINSKRIPZIOA	9
12. INSKRIPZIOA	9
13. SEGURTASUNA ETA ERABILTZEKO ARAUAK	11
14. LARRIALDI ETA AUTOBABES PLANA	12
15. DATU PERTSONALEN BABESA	12
16. KONTAKTUA	12

1. PARTE HARTZEA ETA IRAUPENA

PARTE HARTZAILEAK

- Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleak.
- Hezkuntza bereziko ikastetxetako taldeek edota aniztasun funtzionala duten ikasleek ere parte hartu ahal izango dute.
- Jardunaldi bakoitzean **60 ikaslerentzako lekua dago, gehien jota**. Plaza gehiago behar izanez gero, antolatzaileekin harremanetan jarri beharko da edukiera handitzeko aukera aztertzeko.
- Eskariak eskaintako plazak gainditzen baditu, parte-hartzea aurreinskripzioen hurrenkeraren arabera ezarriko da, eta plazarik gabe geratzen diren ikastetxeak itxaron-zerrendan geratuko dira, aurreinskripzioaren ordena errespetatuz. Zentro horiek lehentasuna izango dute kanpainaren hurrengo edizioan.

IRAUPENA ETA FORMATUA

- 4 orduko saioak, goizez:
 - o **1. EREMUKO IKASTEHEAK** (Iruñerria): 9.30etik 13.30era
 - o **2. EREMUKO IKASTETHEAK** (Iruñetik 50km-ra arte) eta **3. EREMUKO IKASTETHEAK** (Iruñetik 50 km baino gehiagora): 10:00etatik 14:00etara

Aurreinskripzioko formularioan, ikastetxearen udalerrria aukeratzean, dagokion eremua automatikoki erakutsiko da eta, beraz, ikastetxeak dagokion ordutegia ezagutuko du. Email bidez ere jakinaraziko da, behin parte-hartzea baieztatuta.

- Jarduera 2026ko otsailetik apirilera bitartean egingo da.
- Jardunaldi bakoitzean, izotz-patinajeko hastapen-jarduerak, jolas- eta hezkuntza-tailerrak eta izotz-kirolekin lotutako jarduera osagarriak egingo dira.
- Arrazoi teknikoak edo segurtasunekoak direla eta, antolatzaileek ordutegiak edo jarduerak aldatzeko eskubidea izango dute.

2. LEKUA



UHARTE IZOTZ JAUREGIA
Itaroa K. z/g - Uharte (Nafarroa)

- 56x26m-ko izotz-pista, hezkuntza- eta jolas-jardueretarako egokitua.
- Laurehun patin pare baino gehiago, hainbat neurritakoak, eta parte-hartzaile bakoitzarentzat babes-kaskoa eta segurtasun-materiala.



- Jarduerak garatzeko material ludikoa eta didaktikoa (konoak, diskoak, barrak, jokoak eta zirkuituak).
- Aldagela eta komun egokituak, aldatzeko guneekin eta motxilentzako kontsignekin.
- Laguntzaileentzako harmailak eta behaketarako gune seguruak.
- Instalazioko Larrialdietarako eta Autobabeserako Planean integratutako erizaintza-gela eta botikina.
- Megafonia eta barne komunikazioko sistema, teknikarien eta parte hartzen duten ikastetxeen arteko koordinazioa bermatzen duena.



3. HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

- ◇ Nafarroako ikasleen artean jarduera fisikoa eta **ohitura osasungarriak** sustatzea.
- ◇ **Balioetan oinarritutako hezkuntza** sustatzea: bizikidetza, errespetua, lankidetza, inklusioa eta ahalegina.
- ◇ **Oreka, koordinazioa eta autonomia pertsonala** garatzea.
- ◇ **Gorputz Hezkuntza**ren arloko esperientziak beste ingurune ezberdin eta motibagarri batean zabaltzea.

BERARIAZKO HELBURUAK

- ◇ **Izotz gaineko patinajerako eta neguko kirole**tarako sarbidea erraztea.
- ◇ **Izotz-ingurunean lehen aldiz** aritzea erraztea, baldintza seguru eta egokitueta.
- ◇ Ikasleak **izotz gaineko irristaketaren eta desplazamenduaren oinarriko teknika**tan murgiltzea.
- ◇ **Izotz kirolen praktika** jarraituarekiko interesa piztea.
- ◇ Ikasle **guztien inklusioa eta parte-hartzea** bultzatzea.

4. JOAN-ETORRIAK

Aurreinskripzioa egitean, ikastetxeek eskatu ahal dute ikasleak eta irakasleak ikastetxetik Uharteko Izotz Jauregira eramateko autobus-zerbitzua. Zerbitzuaren kudeaketa eta kontratazioa antolatzailearen kargu egingen da (Nafarroako Neguko Kirolaren Federazioa) eta 6 euro kostatuko da persona bakoitzeko.

Autobus-zerbitzua ez kontratatzea erabakitzen duten ikastetxeek Uharteko Izotz Jauregian egon beharko dute, antolakuntzak adierazitako orduan.

5. MATERIALA ETA EKIPAMENDUA

Antolatzaileek ondorengo materiala jarriko dute parte-hartzaile guztien eskura:

- Izotzarako patinak eta babes-kaskoa.
- Material ludikoa eta didaktikoa: konoak, diskoak, barrak eta jokoetarako eta zirkuituetarako beste elementu batzuk.

Gainerako materiala parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko du eta nahitaezkoa izanen da pista sartzeko, eta garrantzitsua da bere izenarekin ondo markatuta egotea:

- Eskularruak
- Kirol arropa, berogarria eta izotzerako egokia.
- Galtzerdi altuak eta aldatzeko arropa.
- Ura eta hamaiketako arina.

6. OSASUN LAGUNTZA ETA ASEGURUAK

Parte-hartzaile guztiek eskola-asegurua edo ikastetxeko aseguruaren bidez babestuta egongo dira.

Larrialdi bat gertatuz gero, jarduera eten eta **Izotz Jauregiko Larrialdi eta Autobabes Planaren protokoloa aplikatuko da.**

Nafarroako Neguko Kirolen Federazioak **Kirol eta Aisialdi Eremuan Haur eta Nerabeen Indarkeriaren Kontra Jarduteko Protokoloa** bat dauka. **Adingabeen ordezkaria** dauka, eta hura izango da arduraduna eta erreferentea Protokoloa aplikatu behar izanez gero.

Kontaktua: inclusivo@fndi.es (Izaskun Adot Larumbe).

7. JARDUNALDIK

30 jardunaldi eginen dira. Gainontzeko 2 datak erabiliko dira baldintz tekniko arazoak direla eta bertan behera gera daitezkeen jardunaldiak egiteko.

OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
Otsailak 4, asteazkena	Martxoak 4, asteazkena	Otsailak 4, asteazkena
Otsailak 5, osteguna	Martxoak 5, osteguna	Apirilak 15, asteazkena
Otsailak 6, ostirala	Martxoak 6, ostirala	Apirilak 16, osteguna
		Apirilak 17, ostirala
Otsailak 11, asteazkena	Martxoak 11, asteazkena	Apirilak 22, asteazkena
Otsailak 12, osteguna	Martxoak 12, osteguna	Apirilak 23, osteguna
Otsailak 13, ostirala	Martxoak 13, ostirala	Apirilak 24, ostirala
Otsailak 18, asteazkena	Martxoak 18, asteazkena	Apirilak 29, asteazkena
Otsailak 19, osteguna	Martxoak 19, osteguna	Apirilak 30, osteguna
Otsailak 20, ostirala	Martxoak 20, ostirala	
Otsailak 25, asteazkena	Martxoak 25, asteazkena	
Otsailak 26, osteguna	Martxoak 26, osteguna	
Otsailak 27, ostirala	Martxoak 27, ostirala	

8. LANGILE TEKNIKOAK ETA LAGUNTZAILEAK

Izotz Kanpainak jarduera guztietako parte-hartzaileei erantzungo die, eta langile tekniko hauek izango ditu:

- **Nafarroako Neguko Kirolen Federazioko koordinatzaile teknikoa (FNDI).**
- **Izotz gaineko patinajeko teknikari tituludunak**, jardueren garapenaren arduradunak.
- **Pistako eta laguntza logistikoko laguntzaileak.**

Ikastetxe bakoitzak parte-hartzaile guztiak dagokien **IRAKASLEEKIN** joango direla bermatu beharko du. Irakasleek zuzeneko erantzukizuna izango dute parte hartzen duten ikasleengan, bai pistan bertan, bai pistatik kanpo.

Ikasle/irakasle ratio hau ezarri da:

TALDEA	GUTXIENEZ	GEHIENEZ
15 kide arte	1	2
16tik 30era	2	4
30etik 60era	3	6

Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen edo aniztasun funtzionala duten pertsonak dituzten ikastetxeen kasuan, ikasle/irakasleen ratioak ikastetxe bakoitzaren beharretara egokituko dira, haien irizpidearen arabera.

IRAKASLEEN BETEBEHARRAK:

- Irakaslegoa parte hartuko duten ikasleen arduraduna izango da
- Joan-etorrietan ikaslegoa antolatuko eta lagunduko du.
- Ikasleei lagundu die ekipamendua janzten eta kentzen (patinak, kaskoa, etab.)
- Izotz gaineko patinajeko teknikariekin elkarlanean arituko dira saioek behar bezala funtziona dezaten.
- Ikasleen puntualtasuna eta ordena bermatuko dute, baita segurtasun arauak eta materiala erabiltzeko arauak ere.
- Ikasleei lagunduko diete osasun-zentrorara eraman behar zaienean.
- Jardunaldian sor daitezkeen jarrera edo gatazkei buruz hartu beharreko edozein erabakiren azken erantzuleak izango dira, betiere Kanpainako koordinatzaile teknikoarekin koordinatuta.
- Jardunaldiaren balorazioa egingo dute formulario baten bidez.

Baldintza horiek bete beharko dira hurrengo deialdietan kanpainan parte hartu ahal izateko.

Antolakuntzak parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren balorazioa egingo du eta aipatutako arau guztiak behar bezala betetzen diren ala ez, hurrengo kanpainetarako kontuan hartuta.

9. JARDUNALDIAREN GARAPENA

Saio bakoitza honela egituratzen da:

- Materialaren banaketa (kaskoa eta patinak).
- Berotze orokorra eta irristatzeko eta orekatzeko oinarrizko jarduerak.
- Taldearen mailetara egokitutako patinajeko progresio teknikoa.
- Izotz gaineko jolas, zirkuitu eta ariketa ludikoak.
- Azken jarduera edo tailer tematikoa (hockeyko hastapenak, erreleboak, talde dinamikak, etab.).
- Luzaketak eta saio-itxiera.
- Arroparen aldaketa eta materialaren ematea.

Saioa ikastetxearen beharretara eta ikasleen adinera eta mailara egokituko da.

10. PARTE HARTZEKO KUOTA

Parte-hartzaile bakoitzeko kostua, diru-laguntzak aplikatu ondoren, kuota eta zerbitzu hauetan ezartzen da:



JARDUERAREN KUOTA IKASLEKO	
8€	Honako hauek ere sartzen dira: ▪ Izotz-patinen eta babes-kaskoaren alokamendua ▪ Pistan sartzeko sarrera ▪ Izotz gaineko patinajeko teknikari tituludunek zuzendutako saioa ▪ Antolakuntza
AUTOBUS ZERBITZUAREN KUOTA IKASLEKO	
6€	Honako hauek ere sartzen dira: ▪ Ikastetxetik Uharteko Izotz Jauregirako bidaia ▪ Uharteko Izotz Jauregitik Ikastetxerainoko bidaia

**Beraz, ikastetxeak autobus zerbitzurik ez edukitzea erabakitzen badu, ikasle bakoitzeko azken kostua 8€ izango da; autobus zerbitzua erabiliz gero, ikasle bakoitzeko jardueraren kostu osoa 14€ izango da.*

- Ikastetxeek autobus-zerbitzua kontratatzea eskatu nahi duten edo ez adierazi beharko dute izen-ematean.
- Autobus zerbitzua eskatuz gero, kostua parte-hartzaile guztien azken kuotan aplikatuko da, salbuespenik gabe.
- Irakasleek ez dute kuotarik ordaindu behar kanpainara joateagatik.
- **EGOERA SOZIOEKONOMIKO TXARREAN DAUDEN IKASLEENTZAKO 150 PLAZA SUBENTZIONATU EGONGO DIRA. %50eko deskontua egingo zaie**
 - Horretarako, kanpainan parte hartu nahi duten eta egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak eskolatuta dituzten ikastetxeek, **plazak esleitu ondoren eta URTARRILAREN 12a baino lehen**, eskaera orria bidali beharko dute hielescolar@fndi.es helbidera, aurreinskripzioaren ondorengo mezuan dagoen ereduaren arabera, honako hau kontuan hartuta:
 - ◊ Ikastetxeko zuzendariak sinatu beharko du eskabidea, eta Zuzendaritza Taldearekin koordinatuta, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetatik jasotako informazioarekin eta ikastetxean eskuragarri dagoenarekin, eta, hala badagokio, EDUCA Kudeaketa Sistemari "egoera sozioekonomiko ahulean dauden eta/edo gizarte-laguntzen mende dauden familietako kide izateagatik" atalean islatuta, zerrenda bat egingo du gizarte- eta ekonomia-egoera ahulean dauden ikasleekin, datu pertsonalak babesteko kanpainan parte hartu nahi duten datuekin. Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak Kanpainan parte hartzeko interesa badute, Ikastetxeko Zuzendaritzaren ardura izanen da hori erabakitzea.
 - ◊ Eskaintako plazak baino ikasle gehiagok izena ematen badute, **URTARRILAREN 14an** zozketa bat egingo da egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei zuzendutako 150 plazak esleitzeko, Kanpainan %50eko diru-laguntzarekin parte hartu ahal izan dezaten.
 - ◊ Zozketa hori eginez gero, ikastetxe eskatzaile bakoitzari posta elektronikoz bidaliko zaio zozketaren akta.



EGOERA SOZIOEKONOMIKO AHULEAN DAUDEN IKASLEENTZAKO KUOTA	
%50eko deskontua	
Jarduera	Autobus zerbitzua
4€	3€

**Ikasle horientzat, ikastetxeak autobus-zerbitzurik ez izatea erabakitzen badu, ikasle bakoitzeko azken kostua 4 € izango da; autobus-zerbitzua erabiliz gero, ikasle bakoitzeko jardueraren kostu osoa 7 € izango da.*

11. AURREINSKRIPZIOA

DATAK: abenduaren 23ra arte
ARRETA ORDUTEGIA: 9:00etatik 14:00etara
TELEFONOA: +34 686 44 21 70
E-MAIL: hieloescolar@fndi.es

BETEBEHARRAK:

- **Aurretiko izen-ematea egiteko**, ondorengo web orri honetan dagoen formularioa bete behar da: <https://www.hieloescolarnavarra.com>. Nahitaezkoa da data guztiak lehentasunaren arabera ordenatzea, eta saio batzuetan parte hartu ezin izateko arrazoia justifikatzea.
- **EZ DA ORDAINKETARIK AURRERATU BEHAR AURREINSKRIPZIOARENGATIK.** Hala ere, kudeaketa gastuengatik, azkenik izena eman ez duen ikasle bakoitzaren kuotaren %30 kobratuko da.
- Dibertsitate funtzionala duten ikasleek parte hartzen badute, aurreinskripzio-fitxan jakinaraziko da, antolamendu-aurreikuspen egokia egiteko.
- Eskaera hainbat ikastetxek batera egiten badute, ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA BIDALI beharko dute, ikastetxe guztiak zerrendatuz, argi eta garbi adieraziz parte hartuko duten ikasleen eta irakasleen kopurua eta ikastetxe bakoitzaren adina eta hizkuntza-eredua.

12. INSKRIPZIOA

DATAK: urtarrilaren tik 21era
ARRETARAKO ORDUTEGIA: 9:00etatik 14:00etara
TELEFONOA: +34 686 44 21 70
E-MAIL: hieloescolar@fndi.es

EPEAK:

- **URTARRILAREN 7an** posta elektronikoz jakinaraziko zaie ikastetxeei esleitutako plazen zerrenda eta itxaron zerrendaren ordena.
- Plaza lortu duten ikastetxeek **URTARRILAREN 16a baino lehen bidali behar dute posta elektronikoz parte-hartzaile guztien izen-abizenak**. Zerrendan honako hauek agertu beharko dute: izen-abizenak, generoa, kurtsoa, hizkuntza (gaztelania edo euskara) eta, egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleentzako plazak lortu badira, hori adierazi beharko da.
- **URTARRILAREN 21a** baino lehen **ORDAINTZEKO FITXAN** adierazitako zenbatekoa ordaindu beharko da. Antolatzaileek ikastetxera bidaliko dute zenbateko hori, parte-hartzaile guztien izen-zerrenda jaso ondoren. Ordainketarik jasotzen ez bada, ikastetxeak esleitutako plazari uko egiten diola ulertuko da. Gogoratu behar da izena eman ez duen ikasle bakoitzaren kuotaren %30 kobratuko dela kudeaketa gastuengatik.
- Inskripzio kuoten ordainketa **Nafarroako Neguko Kirolen Federazioaren** kontu honetan egingen da (IFK: **Q3119440J**)

KONTU ZENBAKIA
ES70 2100 3693 2022 0021 0381

- Abonuak baterakoak izango dira, hau da, ikastetxe bakoitzak abonua bakarrik egingo du, eta bertan parte hartzaile guztien kuotak sartuko dira. Abonuaren titularra ikastetxea izanen da, ez da inoiz pertsonalizatua izanen.
- Beharrezkoa bada eta aldeztu aurretik eskatuta, Nafarroako Neguko Kirolen Federazioak ikastetxeen izenean igorriko ditu jasotako ordainketen fakturak.

OHARRAK:

1. **Tokiak eta datak aurreinskripzioaren hurrenkerari zorroztasunez jarraikiz esleitutako dira, geografiaren eta pista izatearen irizpideei jarraituz.**
 - Behin betiko baieztapena posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaio ikastetxeari, ordainketa jaso ondoren, sarbide-arauekin, ordutegiarekin eta segurtasun-protokoloarekin batera.
 - Plazarik lortzen ez duten ikastetxeak itxaron zerrendan geldituko dira, bajaran egonez gero, parte hartzeko aukera izan dezaten. **Itxaron zerrendaren ordena aurreinskripzioaren hurrenkeraren arabera izanen da.**
2. **Kanpaina batean kanpo geratzen diren ikastetxeek lehentasuna izango dute ondorengo urteetan.**
3. Plazak esleitu ondoren, antolakuntzak, behin betiko inskripzioak ikusita, **aldaketa jakin batzuk egin ahal izango ditu, beharrezkoak diren egokitzapenen arabera**. Aldaketa horiek eragiten dizkien ikastetxeei jakinaraziko zaizkie, hala behar denean.
4. **Esleitutako plazei uko egitea** jarduera egiteko ikastetxe bakoitzari esleitutako eguna baino **hiru aste lehenago** egin beharko da. Hurrengo urteetan lehentasuna izateko eskubidea galduko da eta izena eman duten parte-hartzaile guztiei **kuotaren %70 itzuliko**

zaie. Esleitutako plazei adierazitako dataren ondoren uko egiten bazaie, zigor hauek ezarriko dira:

- Jarduera egiteko esleitutako data baino bi aste lehenago: izena eman duten parte-hartzaile guztien kuotaren %50 itzuliko da.
- Jarduera egiteko esleitutako data baino astebete lehenago: Ez da itzulketarik egiten. Diru horrek erakundeak konprometitutako gastuak estaliko ditu.

5. ITZULKETAK:

- Baja justifikatuak: Behin izen-ematea formalizatuta, parte-hartzailearen batek, arrazoi justifikatuak direla medio, bertaratzerik ez badu, ikastetxeak arrazoi horien berri eman beharko du, dagokion izen-emate kuota osorik itzultzeko eskubidea izateko.
- Diziplina-arrazoiengatik bajak: ikastetxeak aplikatutako diziplina-arrazoiengatik bajen kasuan, 5 parte-hartzaile edo gutxiago badira, eta izen-ematean ordaindutako zenbatekoaren %50 itzultzeko eskatu ahal izateko, parte hartu den eguna baino gutxienez 10 egun natural lehenago jakinarazi beharko da. Baja kopurua 5etik gorakoa bada, ordaindutako zenbatekoaren %50aren itzulketa eskatzeko, baja horiek jakinarazteko epeak parte hartu baino 15 egun natural lehenagokoa izan beharko du, gutxienez. Epe horiek betetzen ez badira, ez da itzulketarik egingo.
- Baldintza tekniko txarrak izanez gero (adibidez, izotza mantentzea edo instalazioak huts egitea), beste data berri bat eskeiniko da jardunaldia burutzeko beti ere, instalazioaren erabilerak aukera ematen badu.
- Jarrera desagokiak dituztenak Kanpainatik kanporatzeko eskubidea izango du antolatzaileak.
- Kanpainaren funtzionamendu onagatik, ikasleek **EZINGO DUTE TELEFONO MUGIKORRIK, MP3, MP4, KAMERA DIGITALIK** edo antzeko gailu elektronikorik **EKARRI**.

13. SEGURTASUNA ETA ERABILTZEKO ARAUAK

Arau orokorrak:

- Derrigorrezkoa da kaskoa eta eskularruak erabiltzea.
- Ezingo da pistara sartu langile teknikoen baimenik gabe.
- Debekatuta dago bultzatzea, korrika egitea edo monitoreek agindu ez dituzten jolasak egitea.
- Taldeek teknikarien jarraibideak beteko dituzte une oro.
- Larrialdi bat gertatuz gero, jarduera eten eta Izotz Jauregiko Larrialdi eta Autobabes Planaren protokoloa aplikatuko da.

14. LARRIALDI ETA AUTOBABES PLANA

Uharteko Izotz Jauregiko Larrialdi eta Autobabes Planak arautzen du jarduera. Neurri garrantzitsuenen artean honako hauek daude:

- Larrialdi-irteeren eta ebakuazio-guneen seinaleztapena.
- Lehen laguntzako eta ebakuazioko langileak izatea.
- Botikina eta esku-ohea pistaren eremuan.
- Udaleko larrialdi-zerbitzuekiko zuzeneko komunikazioa (Udaltzaingoa eta Uharteko Osasun-Zentroa).
- Izotzaren mantentze-lanetako eta kontroleko langileekin koordinaketa.

15. DATU PERTSONALEN BABESA

Ikasleen datu pertsonalak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera tratatuko dira, bakar-bakarrik jardueraren antolaketarako eta segurtasunerako.

16. KONTAKTUA

Nafarroako Neguko Kirolen Federazioa (FNDI-NNKF)
Aizagerria Plaza 1.a, 31006 Iruñea
E-mail: hieloescolar@fndi.es
Telefonoa: +34 686 44 21 70
Kanpainaren Web: <https://www.hieloescolarnavarra.com>



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física



Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua



Uharteko Udala
Ayuntamiento de Huarte



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física



Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua



Uharteko Udala
Ayuntamiento de Huarte